



Kontratazio
publiko elektronikoa
Contratación
pública electrónica

Kontratisten Erregistro Ofizialean izena ematea.

www.contratacion.info
www.euskadi.net/kontratazioa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

02



Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emana izatea eta indarrean dagoen egiaztagiria edukitzea, Eskaintza Elektronikorako ezinbesteko baldintzak.

Kontratisten Erregistro Ofiziala.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistroa Administrazioarekin kontratua egin duten edo kontratatzeko moduan dauden enpresen datuak biltzeko zegoen premiari erantzuten dion gunea da. Metatutako datu horiek guztiak Euskal Administrazio Publikoen organoen esku jartzen dira, izena eman duten enprekin lotutako kontsultak egin eta horiei buruzko informazioa eskura dezaten.

- Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren eskaintza publikoetara maiztasunez aurkezten diren Kontratisten Erregistroan izena emandako enpresek kontratazio prozedura arautzen duten erregelek eskatutako agiri guztiak behin eta berriz aurkeztea saihesten dute, eta, hartara, izapideak arindu egiten zaizkie.
- Izena emandako enpresa bakoitzak dagokion egiaztagiria jasoko du, eta horrekin, Euskal Administrazio Publikoaren eskaintza guztietan aurkezteko modua izango du.

Kontratisten Erregistro Ofizialean izena ematea.

Erregistroan, izena emateko eskariak izena emateko txostenaren bitartez aurkeztu behar dira, eta txosten horretan daude inprimaki normalizatuak.

Txosten hori Eusko Jaurlaritzaren egoitzan edo bere zeinahi ordezkarietan eskuratu ahal izango da. Era berean, ondoko web orri honetatik ere deskargatu ahal izango da: www.contratacion.info.

Eskatzen diren datuak zehaztuz bete beharko dira inprimakiak, eta beharrezkoak diren gainerako agiri osagarriekin batera aurkeztu beharko dira:

1. Izena emateko agirian agertu behar duten datuak:

1. Datu pertsonalak, edo enpresa izanez gero, bere datu sozialak; eta baita administrazio eta kudeaketa zereginak egiten dituzten pertsonen zerrenda ere.
2. Teknikarien eta administrazio langileen zerrenda.
3. Enpresa eskarmentuari buruzko datuak.

2. Eskarian erantsi behar diren agirien zerrenda:

A) AGIRI JURIDIKOAK.

1. Elkartea Eratzeari, edo hala dagokionean, Aldatze eta Egokitzeari buruzko eskriturak, eta horiek dagozkien Erregistro Publikoetan jasota daudela egiaztatzen duen agiria. Enpresaburu banakoa izanez gero, bere Nortasun Agiri Nazionala aurkeztu beharko du.
2. Ahalordetze eskritura, dagokionean Merkataritza Erregistroan jaso beharko dena; eta enpresaren ahalduaren Nortasun Agiri Nazionala.


B) ZERGA BETEBEHARRAK ETA GIZARTE SEGURANTZAREKIKOAK BETETZEARI BURUZKO AGIRIAK

- Izena ematea eta jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren azken ordainagiria, edo, hala dagokionean, ordainketatik salbuetsita dagoela egiaztatzeko balio duen agiria, dagokion Erakunde jasotzaileak emandakoa.

Oharra:

- Eskatzen diren egoeretan daudela egiaztatzeko, originalak, Administrazioak erkatutako kopia edo Notarioaren aurrean egiaztatutako kopia aurkeztu beharko dira.
- Dagokien Ogasunen eta Gizarte Segurantzaren egiaztagiria positiboak eman ondorengo 30 eguneko epean aurkeztu beharko dira, Kontratisten Erregistro Ofizialaren Kontratatzeko Gaitasuna Egiaztatzeko Sailaren aurrean jarraitzen diren prozedurentzat aurreikusitakoa bete dadin.

**Kontratisten Erregistroko
egiaztagiria
6 hilean behin
berritu behar da.**



Eredu erraz, erabilgarri
eta segurua

Izapideak egiteko aurreikusi diren epeak:

- **Ahalegina egiten da izena emateko izapideak hilabete eskasean egiteko, agiri guztiak modu egokian jasotzen diren egunetik zenbatzen hasita.**
- **Ahalegina egiten da berritzeko izapideak gutxi gorabehera hiru eguneko epean egiteko, agiri guztiak modu egokian jasotzen diren egunetik zenbatzen hasita.**

- Administrazio organoek emandako egiaztagiri positibo eguneratuak, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera zerga betebeharrak guztiak egunean dauzkala adierazteko. Errege Dekretu horren bitartez, hain zuzen, Administrazio Publikoen Kontratu Legearen Araudi Orokorra onartu zen.

C) ESTATU MAILAKO SAILKAPENARI DAGOKION DOKUMENTAZIOA.

Hala egingo da, soil-soilik, Ekonomia eta Ogasuneko Ministerioko Kontratazio Administratiboko Aholku Batzordeak jaulkiko sailkapen ziurtagiriak izanez gero.

E) BAIMEN ADMINISTRATIBOAK

Enpresari dagokion iharduera burutzeko ahalmena ematen dioten baimen administratibo bereziak, erakunde eskudunek luzatuta.

Kontratisten Erregistroko egiaztagiria berritzeko agiriak

- Iraungitako egiaztagiria berritzeko eskaria biltzen duen IDATZIA bidali beharko da, eskariarekin batera bidaltzen diren agiriak zein diren zehaztuz. Halaber, ESKRITURA PUBLIKOAK aurkeztuz gero, eskritura horiei begira merkatariazen borondatea zein den zehaztu beharko da.
- Administrazio aginte baten, notario publiko baten edo erakunde profesional baten aurrean emandako adierazpen arduratsua; nolahi ere, erakunde profesionalak nahitaez egiaztatu beharko du Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen 20. artikuluaen arabera Administrazioarekin kontratatzeke debekuetan sartuta ez dagoela eta Administrazioarekin ez daukala zerga betebeharrak egunean dituen beste zeinahi erakundek ez bezalako zerga betebeharrak.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren azken ordainagiria (azken ekitaldiari dagokiona aurkeztu ez den kasuetan bakar-bakarrik), edo, hala dagokionean, ordainketatik salbuetsita dagoela egiaztatzeke balio duen agiria, dagokion Erakunde jasotzaileak emandakoa.
- Administrazio organoek emandako egiaztagiri positibo eguneratuak, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera zerga betebeharrak guztiak egunean dauzkala adierazteko. Errege Dekretu horren bitartez, hain zuzen, Administrazio Publikoen Kontratu Legearen Araudi Orokorra onartu zen.
- Kontratisten Erregistro Ofizialeko azken egiaztagiriaren kopia arrunt bat.

Arretarako telefonoak

012 Euskal Autonomia Erkidegoan

945 01 80 00 Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo

www.contratacion.info
www.euskadi.net/kontratazioa



Eusko Jaurlaritzaren egoitza eta ordezkariak,
beharrezkoak diren izapide guztiak egiteko.

- Vitoria-Gasteiz:
Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusia.
Donostia-San Sebastián, 1
- Bilbao:
Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak
Gran Vía, 85
(Informazio Orokorra - Beheko solairuan)
- Donostia-San Sebastián
Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak.
Andía, 13
(Informazio Orokorra - Beheko solairuan)

Sariak:

ETI EUSKADI 2003
TECNIMAP 2004